ARGIA

ZERUKO

1963 - Uztaillak 7 - ASTEKARIA - XXVI'garren urtea - 1.359'garren Zenbakia

ITALIAKO SOZIALISTAK ZER EGIN?

Elekzioak pasa ziran. Komunistak eta liberalak (eskubi aldekoak) botu asko irabazi zituzten. Kristau demokraziokoak (D. C.) berriz ia 800.000 galdu. Ala ere oraindikan partidurik indartsuena kristau demokrazikoak osatzen dute. Oraingo prolemarik gogorrena: erdiko ezkerra osatzea. Ori benetan al izateko kristau demokrazikoak eta sozialistak batean jokatu bear dute, orrela Italian agindu dezakete, Parlamentuan botu gelenak dauzkatelako. Moro jaunak, kristau demokraziko sekretarioak, egin zituan alegiñak sozialistekin gobernu bat osatzeko bañan etzuan lortu; oraiñ dala gutxi Leone jaunak kristau demokraziokekin bakarrik gobernu bat osatu du ta Parlamentoak baiezkoa eman dio, ez dakigu noiz arte.

Zergatik ez du lortu Moror jaunak sozialistekin gobernua osatzea? Sozialistak zer bide artu ez dakitelako edo ezin dutelako erabaki.

Zer egingo duen sozialistak? Laister gertatuko dana nola igarten dan, orrelakoa izango da erantzuna. Nenni jaunak sozialista partidiuaren (P. S.) sekretarioak au dio: oraiñ kristau demokrazikoei laguntzen ez bazale, Italia gobernatzea oso zalla izango da, orduan jendeak Parlamentuarengan sinñismena galduko du ta faszista antzeko agintaritzaren bat etorriko da; ori gertatu ez dediñ sozialistak kristau demokraziokei gobernu indartsu bat osatzen laguntu bear die. Bañan sozialisten artean gelenak uste dutenez kristau demokrazia erdibitua dago, alde batetik ezker aldekoak eta bestetik eskubizaleak. Kristau demokrazikoak —auen iritzian— sozialistei laguntza eskatzerakoan, eta auek gobernuan sartu ezkero gero ta geroago gobernuaren batasunagatik soziali ta partiduari bere asmo ta egin naiak utzi eraziko dizkio, orduan sozialistak bere izaera guztia galdu izango dute. Ta demokraziaren onagatik ez dezakegu ori gertatzen utzi. Ara Frantzian gertatutakoa, guda bukatu zanetik (1945) ezker zaleak eskubiko gobernuak toleratu ta okerragoa ez gertatzex arren izenean bere burua polliki-polliki galdu dute. Orregatik —sozialista auen iritzian— oraingoz sozialistak kristau demokrazikoekin ez dute parte artu bear, partidua indartu baizik. Onek ez du esan nai erdiko ezkerreko gobernu bat ukatu nai dutenik, baizik eta kristau demokraziak ots egiten dien ezkero, kristau demokraziak berak erabaki dezala nora jo, bañan jatorki, azkerrera edo eskubira, oraingoz kristau demokraziaren barruan ezker aldekoak gutxiñak diralako.

Ontan dago korapilloa. Sozialistak kongresua urrillean izango dute. Dudarik ez dago, garranfzi aundikoa izango dana.

ARREGITAR RIKARDO'K

LUIS MITXELENA JAUNA EUSKAL IZKUTZAREN ATLAS DELAKOAZ MINTZATU DA

Madrillen, Garagarrillaren lenengo amabostaldian jakintsu batzar bat bildu da: «Congreso de Instituciones Hispánicas» deritza eta batzar ontara mundu guziko izkuntzalariak bildu dira. Batzar onetan ba-dago sail bat «Atlas Lingüístico» deritzana eta sail ontan parte artu du Seminario de Filología «Julio Urquijo» Lagunartearen buru egiten duen Luis Mitxelena jaunak, txosten —informe— bat presentatuaz euskal - izkuntzaren atlas baten bearraz.

Interviu batean Mitxelena jaunak itzegin du euskerak iberoromano izkuntzarekin duen artu-emanez, bañan atlas lingüistico ba gabe zailla omen da fenomenu au bear bezela konprobatzen. Beste errialde batzuetan egin omen dira lexikoaren cartografia saioak eta Euskalerria'n Aita Larramendi izan omen zan aurrelari, bañan, lan ontarako oiñarririk sendoenak jarri dituztenak Luis Luziano Bonaparte Jaun Printzea eta Resurrección María de Azkue izan ziran. Gero, Consejo de Investigaciones Superiores Científicas'eko Rafael Balbin jaunak, 1951'garren urtean Jaun Petri Irizar euskalari otsaundikoari verbo-morfologiaren ari-gai bat moldatzeko mandatu egin zion, bañan lantegi onetan etzan aurrera aundirik egin beren lanak etzezaketelako artu-eman zuzenik eduki Peninsula'ko izkuntza-atlasarekin.

Mitxelena jaunak gaiñeratu zuen —emen eman ez ditzakegun xehetasun askoren ondoren— euskal-atlasa egiteko material asko dagoela bilduta, bañan, bere formazioari buruz oraindik ernetzen asiberria omen dago eta gaurkoz ez dirudiela iñor gaitua dagoenik mamitu ahal izateko. Mitxelena jaunak dionez, ezpaitago tankera ontako euskal-arigaietan sakondurik eta bidebatez kartografiaren eta linguistikaren teorian eta praktikan ikasia denik. Beraz, bi bide daude utsune au betetzeko, alegia, batak bestearen jakintzari ekin edo bestela alkarren lankidetasunean jardun. Euskal-izkuntzalari jakintsuaren iritziz, lankidetasuna soluzio azkarragoa litzake, bañan, naiz bide batetik jo, naiz bestetik, oraindanixek ekin bear zaio lantegi oni.

Paulo VI'Garrena Koroatua

«UNE ONETAN GOGORATZEN GERA BATEZ ERE ESKUBIDEZ DAGOKIEN LIBERTADEA ZAPALDUTA DUTEN GIZAKUME GUZIEZ ETA GORPUTZEZ EDO IZPIRITUZ ERI DAUDENEZ»

«JARRAIPENA EMANGO DIOGU KONZILIO EKUMENIKOARI ETA ESKATZEN DIOGU JAUNGOIKOA'RI GERTAKIZUN BIKAIN ONEK SENDOTU DEZALA FEDEA ELIZAN»

Paulo VI'garrenaren Santutasuna aundikiro koroatua izan da Jaun Done Petri'ren (San Pedro) 263'garren jarraitzaillea bezala. Zeremonia bikain ontara bildurik kalkulatzen da Jaun Done Petri'ren plazan 500.000 pertsona zeudela bildurik, munduko bazter guzietatik etorrita.

Ez gindezke murgildu zeremonia guziaren kontakizunean, seirak laurden gutxitatik zortziterditaraiño iraun baitzuen ospakizun miresgarri onek. Gure irakurleak egunerokoetan irakurriko zituzten noski jaialdi osoaren xehetasunak. Esan dezagun soilki, meza eta homiliaren ondoren zortzi terdietan puntuan izan zela koroatua Aita Santu berria. Ottaviani kardenalak, artu zuen Milan'go artxidiozesisak Paulo VI'garrenari erregalatutako tiara eta Aita Santua'ren buruan ipiñi zuen esanaz: «Artzazu tiara au iru koroiez apaindurik eta ontaz jakin ezazu Printze eta Erregeen Aita zerala, munduaren gidari, Jesukristo Gure Salbatzaillearen Ordeko. Berai ohore eta ospe betidaiño».

Jaun Done Petri'ren elizako kanpaiak ekin zioten orduan ospe-errepikari. Euren dilin-dalan pozgarriari berealaxen erantzun zioten Erroma'ko eliza eta komentu guziak. Aita Santua'ren abotsa ozenkiro entzun zan boz-altxagarrien bitartez «Urbi et orbi» bedeinkapena zabaldu zuenean.

Paulo VI'garrenaren Santutasunak bere eliz-itzaldian esandakoetatik, geiagorako tokirik ezean, lerro eder batzuek aterako ditugu gure irakurleen jakingarri:

3'garren orrialdean buketzen du

PAUL LAXALT, IPAR-AMERIKETAKO GOBERNADORE EUSKALDUNA

Euskalerria'n iñor gutxik jakingo dunoski nor den Paul Laxalt. Alabaiña, Ipar-Amerikétako euskaldunen artean eztago gaur gizon onena baiño izen sonatuagorik.

Laxalt, iñork basterik uste ba'du ere, euskaldun deitura da, bañan, Bidaso'z besteko euskal-deitura askoren gixa, antzaldaturik eta atzerri gixara emanik dago. Jatorriz, deitura au Zuberoa'koa dugu eta ango euskeran "Latsalte" oguzten da, gure —alde atzizkia —alte baita euskaldi artan. Beraz, beste nun-naiko euskalgietan "Latsalde" lltzake. Antziñako "Latsalde" keta geroagoko "Errekalde"k esangura berdiña dute, "laisa", "erreka" balta.

Paul Laxalt, lau urtetan prokuradore izan ondoren, joan den Abenduan Teniente-Gobernadore izentatua izan da Partidu Errepublikanuaren partez. Au dugu Ipar-Ameriketako lendabiziko euskalduna alako puesto goiti baterako izentatua izan dena eta izentapen onek gaiñera ateak zabaltzen dizkio, gerora, Legerri-Alzartuetako —Estados Unidos'eko— Senadutako Gobernadore izateko. Au dala-ta, Ipar - Ameriketako euskaldunak arrotasunez beterik daude, zaldun arei eta prestu euren artean sortua delako.

Paul Laxalt'ek berrogee urte ditu. Lege-gizon da ogibidez eta prokuradore izan zen garaian asko gailendu zen bere lantegian.

Reno'n jaio zen eta Carson deritzan urian azi. Santa Clara'ko Ikastetxe-Nagusian —Universidadean— estudiatu zuen eta lege-ikaskizunen izentapena Dewver'ko Universidadean eskuratu zuen.

Bigarren Gerla Aundiko gudarioia —ex-combatiente— da. Prokuradoretza lau urtean egin zuen Orenbby'ko barrutian. Gero, partikularki Carson-City'n lan egin zuen. Baita ere parte artu zuen polizia errepublikannaren batzordeko lendakari bezala, beronen gidari trebe eta lao izanaz azkeneko urteetan.

Gobernadore izentatzeko, etsairik nabarmenena Grant Sawyer izan zuen. Onek, Las Vegas'ko Berkeley I. Beneker demokrata nai zuen aukeratu, alderdi ontakoen eskuetan utziz administraziloa. Sawyer'ek gogor eraso zion, polizako lendakaritzan egindako aministrazio-lana kritikatuz eta esanaz arrisku audikoa zela. Gobernadoretza "aur aurrerako!" baten eskuetan jartzea. Bañan, Nevada'ko iparraldeko distrituak gogor sustengaturik, Beneker bere leikidea borroka garbian menderatzen du.

Paul Laxalt'en famelia oso ezaguna da Nevada'n eta aspaldilik sustraitua errialde ontan. Bere bi anai ere Jhon eta Peter, prokura-

3'garren orrialdean buketzen du